XIV **Premio**
**de Investigación** *sobre* **Europa**

FRANCISCO JAVIER DE LANDABURU

# UNIVERSITAS 2016

**CONVOCANTE:** EUROBASK.
Consejo Vasco del Movimiento Europeo.

**PARTICIPANTES:** Investigadores con licenciatura universitaria o titulación superior, bien a título individual o integrados en un equipo investigador.

**TEMA:**

**La crisis de las personas refugiadas y la Unión Europea:**

**Causas, impactos, asilo, políticas de inmigración, asilo, marco jurídico…**

**TRABAJO:** Un proyecto de investigación que, en caso de ser premiado, deberá ser desarrollado en forma de ensayo.

**DOTACIÓN:** **10.000 €**

**PRIMER PREMIO:** 4.000 € al mejor proyecto de investigación.

**DOS ACCÉSITS:** 2.000 € para dos proyectos de investigación seleccionados por el Jurado.

**UN ACCÉSIT:** 2.000 € para un proyecto de investigación de un/a joven del sistema universitario vasco.

**FECHA LÍMITE PRESENTACIÓN:**

**21 de marzo de 2016.**

**INFORMACIÓN**


**EUROBASK**
Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua
Consejo Vasco del Movimiento Europeo

Prado, 8 - 1º dcha.
01005 VITORIA-GASTEIZ
Teléfono: 945 12 35 38
eurobask@eurobask.org
www.eurobask.org


EUROBASK decidió en el año 2001, en que celebraba su 50 aniversario, crear un Premio de Investigación con el nombre de "Francisco Javier de Landaburu Universitas", en recuerdo del que fue miembro de la primera Junta Directiva de EUROBASK creada en 1951 y destacado estudioso e intelectual de los temas europeos.

Este premio se dedica a promover los estudios y reflexiones sobre los aspectos de la construcción europea con mayor interés para la ciudadanía en el momento de su convocatoria.

La convocatoria queda fijada con periodicidad anual.

## Objetivos

- Promover una reflexión sobre aspectos de la actualidad europea con especial incidencia en nuestra sociedad.
- Animar a los investigadores a centrar su objeto de estudio en el proceso de integración europea.
- Contribuir a mantener vivo el debate sobre el futuro de la UE, con objeto de estar preparados ante los grandes cambios que se están produciendo en nuestras economías, sociedades y formas de organización política.
- Difundir la identidad y los fines de EUROBASK, y premiar las investigaciones que contribuyan mejor al logro de sus objetivos.

## Bases

### 1. PARTICIPANTES

Investigadores con licenciatura universitaria o titulación superior, bien a título individual o integrados en un equipo investigador. En el supuesto de que se trate de grupos de trabajo, la persona que se responsabilice de la dirección del proyecto de investigación deberá acreditarse convenientemente.

En futuras convocatorias, no podrán concurrir quienes hayan obtenido el *Premio Francisco Javier de Landaburu Universitas* en alguna de las anteriores ediciones, ni miembros de la Junta Directiva de EUROBASK y miembros del Jurado, bien a título individual o como miembros de equipos de investigación.

### 2. TEMA

La llegada de personas refugiadas a la Unión Europea ha alcanzado niveles excepcionales durante el 2015, llenando las portadas de los medios de comunicación y provocando agitados debates políticos y sociales. Las tragedias han situado esta cuestión en el centro de la agenda europea, donde ha permanecido durante meses por la magnitud de las cifras.

Según datos de ACNUR, el número de personas desplazadas en el mundo, ha ascendido un 157% en los últimos 5 años, llegando a la cifra astronómica de 60 millones de personas desplazas en el mundo, de las cuales, durante el 2015 más de un millón de personas refugiadas e inmigrantes han llegado a las costas europeas y unas 3.750 personas han perdido la vida durante el viaje. Más del 75% de quienes llegan a Europa han huido de la persecución y los conflictos en Siria, Afganistán o Irak.

La diversa respuesta ofrecida por los países de la Unión Europea a esta gran afluencia, ha puesto en peligro los pilares fundamentales de la integración europea.

Como entidad europeísta, EUROBASK invita a los investigadores a reflexionar e investigar sobre el papel que ha jugado, está jugando y podrá jugar la Unión Europea en la mediación de la crisis y acogida de las personas refugiadas, a la vez que propone investigar sobre cuáles son las causas y las posibles consecuencias que generará esta crisis.

Por todo ello, EUROBASK dedica el premio *Francisco Javier de Landaburu UNIVERSITAS* al tema:

**La crisis de personas refugiadas y su impacto sobre la UE**

Y como temas posibles de investigación, EUROBASK sugiere:

- La dimensión de la crisis de personas refugiadas en Europa: asilo/inmigración.
- Las causas geopolíticas de la crisis de personas refugiadas.
- Las causas económicas de la crisis.
- Las causas climáticas de la crisis.
- El marco jurídico de la acogida de personas refugiadas.
- Los sistemas de acogida de los refugiados en Europa.
- La labor de Frontex: funcionamiento y condicionantes.
- Cómo ha reaccionado Europa ante la crisis: retos y oportunidades.
- Cómo reaccionan algunos estados europeos, discursos políticos.
- Populismo Vs hospitalidad.
- El derecho de asilo en España: derecho y práctica.
- La posición de España ante la UE en materia de asilo e inmigración.
- Los sistemas de acogida y coordinación en Euskadi
- Otros aspectos relacionados con el tema.

Los proyectos de investigación presentados al Premio podrán analizar cualquier cuestión relacionada con el tema de la convocatoria. **No se considerarán elegibles los proyectos que no incluyan la perspectiva europea en su planteamiento y/o objeto de estudio.**

### 3. CONDICIONES PARA LA PRESENTACIÓN DE PROYECTOS

- Sólo podrán presentarse proyectos de investigación inéditos y con entidad propia que no cuenten con ninguna otra financiación específica. No se admitirán proyectos de una investigación ya realizada en el momento de su convocatoria.
- La concesión del Premio o accésit conlleva la obligación de realizar el proyecto de investigación premiado.

### 4. OBLIGACIONES DE LOS BENEFICIARIOS

- El hecho de concurrir a este Premio implica la total aceptación de las Bases que rigen en esta convocatoria.
- En caso de publicación de la totalidad o parte del primer Premio o accésits, deberá hacerse constar de forma expresa en la publicación *"Premio de Investigación Francisco Javier de Landaburu Universitas 2016"*.
- La persona o equipos de investigación que reciban el primer Premio o accésits deberán:
  - Realizar una investigación conforme a los estándares de rigor y ética de la investigación, sobre el tema y proyecto premiado.
  - La extensión del trabajo no podrá ser inferior a 25 páginas, ni superior a 50.
  - Comunicar cualquier cambio que se produzca en el proyecto presentado.
  - Participar en una jornada para exponer el trabajo en una conferencia.
  - Entregar 1 ejemplar impreso del trabajo de investigación, una copia en soporte informático y un breve artículo-resumen para publicar en la revista EUROBASK o en la página web de EUROBASK.
  - Entregar los trabajos de investigación premiados para el 28 de noviembre de 2016.

### 5. MÉRITOS A VALORAR EN LOS PROYECTOS PRESENTADOS

El Jurado valorará en los proyectos de investigación presentados:

- Sus contenidos.
- La metodología utilizada.
- Su carácter innovador.
- La trayectoria y proyección de futuro de la cuestión objeto de la investigación.
- Su vigencia y oportunidad.
- La inserción del proyecto en una línea de investigación asentada.
- La experiencia previa, currículum vitae e itinerario investigador del autor, o del equipo de investigación, en estudios relativos a la materia presentada.

### 6. DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR SOBRE LOS PROYECTOS DE INVESTIGACIÓN

- CV (máximo un folio) con fotocopia de los títulos universitarios y otros títulos que se posean y se considere puedan ser de interés para el Jurado. (Si fuera equipo, de todos los miembros del equipo).
- Los datos que deben acompañarse a la Memoria del proyecto de investigación son:
  - Título.
  - Resumen del proyecto (máximo dos folios).
  - Descripción de los objetivos concretos del proyecto.
  - Hipótesis y objetivos generales y específicos de la investigación.
  - Bibliografía.
  - Si el proyecto se va a desarrollar en algún Departamento universitario o institución, se requiere una carta de presentación de la persona responsable del mismo, en la que debe constar su compromiso de aceptar y tutelar al investigador en dicho Centro.
  - Dirección, email y teléfono de contacto del/la solicitante, o del director/a del equipo de investigación.

### 7. PLAZO DE PRESENTACIÓN DE LOS PROYECTOS DE INVESTIGACIÓN

- El plazo de presentación de los proyectos de investigación finaliza el 21 de marzo de 2016.
- Los proyectos de investigación deberán presentarse o enviarse por correo certificado a la sede de EUROBASK

Prado, 8 - 1º dcha.
01005 VITORIA-GASTEIZ

### 8. JURADO

El Jurado del *Premio Francisco Javier de Landaburu Universitas*, estará compuesto por los siguientes miembros:

- Presidente de EUROBASK. (Presidente del Jurado).
- Secretario General de EUROBASK. (Secretario del Jurado).
- 2 miembros de la Junta Directiva de EUROBASK.
- 1 miembro de la Asamblea de EUROBASK.
- 1 representante del Gobierno Vasco.
- 1 profesor/a universitario/a relacionado con el tema del Premio.
- 1 representante del Parlamento Vasco.

Sobre la concesión del primer Premio y accésits:

- La convocatoria podrá declararse desierta, ya sea total o parcialmente, si ninguno de los proyectos presentados reuniera a juicio del Jurado la calidad y las garantías necesarias.
- Cualquier decisión del Jurado relativa a la adjudicación del primer Premio y accésits deberá venir avalada por la mayoría de sus miembros presentes. En caso de empate decidirá el voto de calidad del Presidente del Jurado.
- El plazo de resolución para conocer el primer Premio y los accésits premiados será el 31 de mayo de 2016.

### 9. DOTACIÓN ECONÓMICA

- Se destina al Premio al que se refiere la presente convocatoria la cantidad de 10.000 €, repartidos de la siguiente manera:
  - **PRIMER PREMIO:** 4.000 € al mejor proyecto de investigación.
  - **DOS ACCÉSITS:** de 2.000 € para dos proyectos de investigación seleccionados por el Jurado.
  - **UN ACCÉSIT:** de 2.000€ para un proyecto de investigación de un/a joven del sistema universitario vasco de 30 años o menos.
- El primer Premio y los accésits estarán sujetos a la retención por IRPF.
- La forma de realización del pago será dividida en dos plazos. Un 35% en el momento de la concesión y el 65% restante una vez recibido y aprobado por el jurado evaluador el resultado final del trabajo.
- La Junta Directiva de EUROBASK aprobará la realización de un libro si estimara que el primer Premio y los accésits son merecedores de ser publicados. En cualquier caso todos los artículos premiados se publicarán en la página web de EUROBASK

### 10. MEDIDAS PARA GARANTIZAR EL BUEN FIN DEL PREMIO

- El Jurado tendrá la posibilidad de modificar la resolución de concesión del primer Premio y accésits y, en su caso, de exigir la devolución de las cantidades anticipadas si las personas premiadas no cumplen con los plazos intermedios de entrega de los informes sobre la marcha del trabajo, o bien no alcanzaran los niveles adecuados de calidad, y/o rigor científico y ética de la investigación.
- El Jurado podrá decidir el reintegro del importe del primer Premio o accésits, si no se cumplieran por parte de las personas premiadas las presentes Bases.
- EUROBASK podrá solicitar a las personas premiadas informes periódicos sobre el desarrollo del proyecto de investigación.

### 11. DERECHOS DE EXPLOTACIÓN

Los derechos de explotación correspondientes al primer Premio y accésits se cederán con exclusividad y a título gratuito a EUROBASK, obligándose las personas premiadas a otorgar el documento oportuno, cuando sea necesario, para la debida constancia pública de la cesión de los derechos de propiedad intelectual que se contempla en las presentes Bases y reservándose EUROBASK el derecho a publicar los trabajos premiados.

## XV PREMIO UNIVERSITAS 2016

***FRANCISCO JAVIER DE LANDABURU***

## FICHA DE INSCRIPCIÓN

**I. DATOS PROFESIONALES:**

Apellidos: ____________________

Nombre: ____________________

Lugar de trabajo o estudios: ____________________

Departamento: ____________________

Dirección: ____________________

Municipio: ____________________ Provincia: ____________________

País: ____________________ C.P.: ____________ Teléfono: ____________

Email ____________________

**II. DATOS DEL PROYECTO DE INVESTIGACIÓN:**

Título: ____________________

____________________

**III. SOLICITA**

Ser admitido/a en el XV Premio de Investigación "*Francisco Javier de Landaburu Universitas 2016*", para cuyos efectos acompaña cuanto se exige en las Bases de la convocatoria, aceptándolas en su totalidad.

Firmado:

En.................................................... a ........ de.......................................de 20 ......

XV. Europari buruzko ikerketa saria

FRANCISCO JAVIER DE LANDABURU

# UNIVERSITAS 2016

**DEIALDIA EGITEN DUENA:** EUROBASK. Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua.

**PARTE-HARTZAILEAK:** Unibertsitateko lizentziadunak edo goi tituludunak diren ikerlariak, banaka edo ikerketa talde baten barruan.

**GAIA:**

**Errefuxiatuen krisia eta Europar Batasuna:**

**Zergatiak, eraginak, immigrazio politikak, asiloa, zuzenbide-esparrua…**

**LANA:** Ikerketa proiektu bat izango da. Sarituz gero, ikerketa proiektua saiakera gisa garatu beharko da.

**HORNIKUNTZA:** **10.000 €**

**LEHEN SARIA:** 4.000 €, ikerketa proiekturik onenari.

**BI AKZESIT:** 2.000 €-koak, epaimahaiak hautaturiko bi ikerketa proiektuetarako.

**AKZETIS BAT:** 2.000 €koa Euskal Unibertsitate sareko gazte batek egindako ikerketa proiektu onenarentzako.

**AURKEZTEKO EPEA NOIZ BUKATZEN DEN:**

**2016eko martxoaren 21an.**

**ARGIBIDEAK:**


**EUROBASK**
Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua
Consejo Vasco del Movimiento Europeo

Prado, 8 – 1 esk.
01005 VITORIA / GASTEIZ
Telefonoa: 945 12 35 38
eurobask@eurobask.org
www.eurobask.org


EUROBASKek 2001ean erabaki zuen, 50. urteurrena egin zuelarik, Ikerketa Saria sortzea, *Francisco Javier de Landaburu Universitas* izenarekin. Hartara, 1951n sortutako EUROBASKen lehenengo Zuzendaritza Batzordeko kide izandako gizon hura oroitarazi nahi dugu, europar gaien ikerlari eta intelektual nabarmena izan baitzen.

Sari hau, deialdiko unean gehien eragiten dioten europar eraikuntzako alderdiei buruzko azterketak eta gogoetak sustatzera zuzentzen da.

Deialdia urtero egiten da.

## Helburuak

- Gure gizartean bereziki eragiten dioten gaur eguneko europar gaien inguruko gogoeta sustatzea.
- Ikerlariak europar integrazio prozesuari buruzko ikerketak egitera animatzea.
- Europar Batasunaren etorkizunaren gaineko eztabaida bizirik mantentzea, gure ekonomietan, gizarteetan eta antolakuntza politikoan gertatzekoak diren aldakuntza handietarako prest izateko.
- EUROBASKen nortasunaren eta xedeen berri zabaltzea, eta dituen helburuak lortze aldera hobekien laguntzen duten ikerketak saritzea.

## Oinarriak

### 1. PARTE-HARTZAILEAK

Unibertsitateko lizentziadunak edo goi tituludunak diren ikerlariak, banaka edo ikerketa talde baten barruan. Lan taldeak izanez gero, ikerketa proiektuko buru denari egiaztagiri egokiak eman behar zaizkio.

Etorkizunean egiten diren deialdietan, ezin izango dute parte hartu ordu arteko ekitaldietan *Francisco Javier de Landaburu Universitas Saria* lortu dutenek, ez eta EUROBASKeko Zuzendaritza Batzordeko kideek eta epaimahaiko kideek ere (ez banaka, ez ikerketa talderen bateko kide gisa).

### 2. GAIA

Europar Batasunera 2015 urtean zehar heldu den pertsona errefuxiatuen kopurua ezohiko honek, komunikabideen lehen orriak bete ditu, eztabaida politiko eta sozial sutsuak sortuz. Tragediek, Europako agendaren erdian jarri dute gai hau, eta hileetan zehar bertan egon da, etorkinen kopuru handia dela eta.

Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioaren (ACNUR) datuen arabera, munduan leku aldatze behartua sufritu duten pertsonen kopurua, %157a igo da azken 5 urteotan, 2015eko errefuxiatuen kopurua 60 miloi pertsonetara heldu delarik. Horietatik miloi bat pertsona baino gehiago Europako kostaldetara iritsi ziren 2015 urtean, eta 3.750 pertsona bidaian zendu ziren. Europara heltzen diren errefuxiatuen %75a baino gehiago Siria, Afganistan edo Irakeko jazarpen eta gatazketatik ihesi etorri dira.

Europar Batasuneko aberriek gai honi emandako erantzun ezberdinek, kolokan utzi dituzte Europar Batasunaren integrazioaren oinarriak.

Erakunde europazalea izanik, EUROBASKek gonbita luzatzen die ikertzaileei, Europar Batasunak krisi honetan izan duen, egun duen eta eduki dezakeen bitartekaritza eta harrera rola aztertu dezaten, zein krisi honen arrazoiak eta izan ditzaken ondorioak ikertu ditzaten.

Guzti honengatik, EUROBASKek *Francisco Javier de Landaburu UNIVERSITAS 2016 saria* hurrengo gaiarekin argitaratzen du:

**Errefuxiatuen krisia eta Europar Batasuna**

Har daitezkeen ikergaien adibide batzuk, iradokizun gisa:

- Errefuxiatuen krisiaren hedadura: asiloa /immigrazioa.
- Errefuxiatuen krisiaren zergati geopolitikoak.
- Krisiaren zergati ekonomikoak.
- Krisiaren zergati klimatikoak.
- Errefuxiatuen harreraren zuzenbide-esparrua.
- Errefuxiatuen harrera sistema Europan.
- Frontex-aren lana: Funtzionamendua eta baldintzatzaileak.
- Europak, krisiaren aurrean izan duen erantzuna: erronkak eta aukerak.
- Europako Estatu batzuen erantzuna, diskurtso politikoak.
- Populismoa Vs harrera.
- Espainiako asilo eskubidea: zuzenbidea eta praktika.
- Espainiak EB aurrean hartutako jarrera asilo eta immigrazio gaietan.
- Euskadiko harrera eta koordinazio sistema.
- Gaiarekin lotutako beste gai batzuk.

Sarira aurkeztutako ikerketa proiektuek deialdiari lotutako edozein gai aztertu ahalko dute. **Ez dira hautagaitzat hartuko beren planteamenduan edo aztergaian europar ikuspegia sartzen ez duten proiektuak.**

### 3. PROIEKTUAK AURKEZTEKO BALDINTZAK

- Lan argitaragabeak baino ezingo dira aurkeztu, eta berezko izaera izan behar dute. Lanek ez dute aurretik izan behar Sarira aurkezten den ikerketa proiekturako finantzaketa berezirik.
- Lehen saria edo akzesitak emateak sarituriko ikerketa proiektua gauzatzeko betebeharra dakar berekin.

### 4. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

- Sari honetan parte hartzeak deialdia arautzen duten oinarri guztiak onartzea dakar berekin.
- Lehen saria edo accesitak osorik edo zati batean argitaratzen badira, honako hau espresuki adieraziko da argitalpen horretan: *“Francisco Javier de Landaburu Universitas Ikerketa Saria, 2016”.*
- Lehen saria edo akzesitak jasotzen dituzten egileak edo ikerketa taldeek betebehar hauek izango dituzte:
  - Saritutako gaiari eta proiektuari buruzko ikerlana egitea. Lan hori etika eta zorroztazunesko estandarrekin bat etorri behar da.
  - Lanak gutxienez 25 orrialde izan beharko ditu, eta gehienez 50.
  - Aurkezturiko proiektuan gertatzen den edozein aldaketa jakinaraztea.
  - Jardunaldi batean parte hartzea, lana hitzaldi batean azaltzeko.
  - Ikerketa lanaren ale inprimatu bat ematea, bai eta kopia bat euskarri informatikoan eta laburpen artikulu motza ere, Eurobask aldizkarian edo EUROBASKen webgune ofizialean argitaratzeko.
  - Ikerketa lan sarituak 2016ko azaroaren 28an aurkeztea.

### 5. AURKEZTUTAKO PROIEKTUETAN BALIOZTATUKO DIREN MEREZIMENDUAK

Epaimahaiak honako hauek balioztatuko ditu aurkezturiko ikerketa proiektuetan:

- Edukiak.
- Erabiliko den metodologia.
- Izaera berritzailea.
- Ikergaiaren ibilbidea eta etorkizunerako proiekzioa.
- Ikergaiaren gaurkotasuna eta egokitasuna.
- Proiektua ikerketa lerro errotu baten barruan egotea.
- Egilearen edo ikerkuntza taldearen aurretiazko esperientzia, curriculuma eta ikerketa-ibilbidea, aurkeztu den gaiaren gaineko ikerketei dagokienez.

### 6. AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK IKERKETA PROIEKTUEI BURUZ

- Curriculum Vitaea (orrialde bat, gehienez), eta, batera, unibertsitate tituluaren fotokopia, bai eta norberak dituen beste titulu batzuen fotokopia ere (hiru gehienez), epaimahaiarentzat interesgarriak izan daitezkeela uste bada (taldea bada, kide guztien curriculuma aurkeztu behar da).
- Ikerketa proiektuaren txostenean adierazi beharreko datuak:
  - Izenburua.
  - Proiektuaren laburpena (bi orrialde, gehienez).
  - Proiektuaren helburu zehatzen deskribapena.
  - Ikerketaren hipotesi eta helburu orokorrak eta zehatzak.
  - Bibliografia.
  - Proiektua unibertsitate sail batean edo erakunde batean egin behar bada, horren arduradunaren aurkezpen gutuna beharrezkoa da. Gutunean, ikertzailea bere zentroan onartuko duela eta haren tutoretzaz arduratuko dela aginduko du.
  - Eskatzailearen edo ikerketa taldeko buruaren helbidea, posta elektronikoko helbidea, eta harremanetarako telefonoa.

### 7. IKERKETA PROIEKTUAK AURKEZTEKO EPEA

- Ikerketa proiektuak aurkezteko epea 2016eko martxoaren 21an bukatuko da.
- EUROBASKen egoitzan aurkeztu behar dira lanak, edo hara bidali posta ziurtatuz. Helbidea:

Prado kalea, 8 - 1. eskuina
01005 VITORIA/GASTEIZ

### 8. EPAIMAHAIA

*Francisco Javier de Landaburu Universitas* Sariko epaimahaiak kide hauek izango ditu:

- EUROBASKeko lehendakaria. (Epaimahaiaren burua).
- EUROBASKeko idazkari nagusia. (Epaimahaiaren idazkaria).
- EUROBASKeko Zuzendaritza Batzordeko bi kide.
- EUROBASKeko Biltzarreko kide bat.
- Eusko Jaurlaritzaren ordezkari bat.
- Unibertsitateko irakasle bat, Sariaren gaiarekin zerikusia duena.
- Eusko Legebiltzarraren ordezkari bat.

Lehen saria eta accesitak emateaz:

- Deialdia hutsik utz daiteke, erabat edo zati batean, baldin aurkezturiko proiektuetako batek ere ez baditu epaimahaiaren iritziz beharrezkoak diren kalitatea eta bermeak.
- Epaimahaiak lehen saria eta accesitak esleitzeari buruz hartutako edozein erabaki, bertaratutako kideen gehiengoa horren alde agertuta hartu behar da. Berdinketarik izanez gero, epaimahaiburuaren kalitate botoak erabakiko du.
- Lehen sariaren eta akzesiten ebazpena 2016eko maiatzaren 31an ezagutaraziko da.

### 9. HORNIKUNTZA EKONOMIKOA

- Deialdi honi dagokion sarirako diru kopurua 10.000 € da, honela banatuta:
  - **LEHEN SARIA:** 4.000 €, ikerketa proiekturik onenari.
  - **BI AKZESIT:** 2.000 €-koak, epaimahaiak hautaturiko bi ikerketa proiektuetarako.
  - **AKZESIT BAT:** 2.000 €koa Euskal Unibertsitate sareko gazte batek egindako ikerketa proiektu hoberenarentzako. Gazteak 30 urte edo gutxiago izan behar ditu.
- Lehen sariari eta akzesitei Pertsona Fisikoen gaineko Errenta Zergari dagokion atxikipena egingo zaie.
- Ordainketa bi epetan banatuko da. Saria ematean %35a ordainduko da; eta gainerako %65a, behin epaimahai balioztatzaileak lanaren azken emaitza jaso eta onartu ondoren.
- EUROBASKeko Batzordeak liburu bat argitaratzea erabakiko du, baldin lehen sariak eta akzesitek argitaratzea merezi dutela uste badu. Artikulu sarituak, betiere, EUROBASKen webgunean argitaratuko dira.

### 10. IKERKETA SARIAREN EGOKIA BERMATZEKO NEURRIAK

- Epaimahaiak lehen saria eta accesitak emateko ebazpena aldatzeko aukera izango eta horrela izanez gero, aurreratu den diru kantitatea exijitu, saridunek lanaren garapenari buruzko txostenak aurkezteko tarteko epeak betetzen ez badituzte, edo txosten horiek ez badira behar bezalako kalitate mailara iristen, edo etikoki edo zientifikoki gutxieneko zorroztasun bat ez badute.
- Lehen sariak eta akzesitek ez badituzte oinarri hauek betetzen, epaimahaiak sariaren hornikuntza ekonomikoa itzuli behar dutela erabaki dezake.
- EUROBASKek saridunei txostenak eskatu ahal izango dizkie, aldian-aldian, ikerketa proiektua nola doan jakiteko.

### 11. USTIAPEN ESKUBIDEAK

Lehen sariaren eta accesiten ustiapen eskubideak, osorik eta doan, EUROBASKek izango ditu. Saridunek, hori horrela izan dadin, dokumentu egokia eman beharko dute, beharrezko denean. Hartara, publikoki jasota geratuko da oinarriotan adierazitako jabetza intelektualaren ematea gertatu dela. Horrenbestez, EUROBASKek lan saridunak argitaratzeko eskubidea izango du.

## XV. UNIVERSITAS SARIA 2016

***FRANCISCO JAVIER DE LANDABURU***

## INSKRIBATZEKO FITXA

**I. PARTE-HARTZAILEAREN DATUAK:**

Abizenak: ______________________________

Izena: ______________________________

Lantokia edo ikastetxea: ______________________________

Saila: ______________________________

Helbidea: ______________________________

Udalerria______________________Probintzia: __________

Lurraldea: ______________ Posta kodea: ______Telefonoa: __________

Helbide elektronikoa: ______________________________

**II. IKERKETA PROIEKTUAREN DATUAK:**

Izenburua: ______________________________

______________________________

**III. ESKATZEN DUT**

*“Francisco Javier de Landaburu Universitas 2016” XV. Ikerketa Sarirako* onar nazazuela. Horretarako, deialdiko oinarrietan eskatzen den guztia bidaltzen dut honekin batera, eta osorik onartzen ditut oinarri horiek.

Izenpetua

.......................................... n, 20 ........ (e)ko ...................................ren ......(a).